

artea
eta

mitoa

PRADOKO
JAINKOAK

2018ko uztailaren 7tik urriaren 28ra

Arte y mito

Los dioses del Prado

Del 7 de julio al 28 de octubre de 2018

Erakusketa / Exposición
San Telmo Museoa

MUSEO NACIONAL DEL PRADO 200 AÑOS Obra Social "la Caixa" STM donostia kultura

Olinpoko jainkoak San Telmo Museora iritsi dira Museo Nacional del Pradoren eta “la Caixa” Gizarte Ekintzaren eskutik

Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak erakusketa bihartik aurrera, uztailak 7, bisitatu ahal izango da, urriaren 28ra arte; “la Caixa” Gizarte Ekintzak eta Museo Nacional del Pradok antolatua da, San Telmo Museoaren lankidetzarekin.

Mitologia klasikoaren eta horrek artearen historian izan dituen irudikapenen inguruko begirada zabala eskaintzen du, K.a. I. mendetik K.o. XVIII. mendera arteko pinturen, eskulturen eta objektuen bidez. Besteak beste, Francisco de Zurbarán, José de Ribera, Pedro Pablo Rubens, Michel-Ange Houasse, Francesco Albani, Corrado Giaquinto eta Leone Leoni-ren lanak egongo dira. Erakusketaren komisarioa Fernando Pérez Suescun da, Museo Nacional del Pradoko Hezkuntza Saileko Eduki Didaktikoen burua

Mitoak jainkoen lorpenak eta ekintzak kontatzeko modua dira. Jainko horiek gizakien patua zuzendu ez ezik, Lurrera jaisten dira eta haiekin elkarreragina dute; hori da mito konplexuen jatorria, non heroien eta erdijainkoen istorioak gurutzatu egiten diren. *Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak* erakusketa berria da, “la Caixa” Gizarte Ekintzak eta Museo Nacional del Pradok antolatua, bi erakundeek duten itun estrategikotik sortua. Erakusketak Mitologia klasikoaren eta horrek artearen historian izan dituen irudikapenen inguruko begirada zabala eskaintzen du, K.a. I. eta K.o. XVIII. mendeen artean datatutako pinturen, eskulturen eta objektuen bidez. Proposamena diakronikoa da eta Museo Nacional del Pradoko bildumaren 50 piezatatik abiatzen da, tartean funtsezko egileenak, besteak beste, Rubens, Ribera edo Zurbarán. Erakusketak zortzi atal tematikotan banatua dago, eta aldi berean eskaintzen ditu jainkoen irudikapen ezberdinak eta pasadizo mitologiko berberaren interpretazio anitzak. Horrek ahalbidetu egiten du Museo del Pradoren bildumako aberastasun ikonografikoa, geografikoa eta kronologikoa hautematea aldi berean.

Erakusketak mitologia klasikoa ezagutzera emateko era berri bat aurkezten du, Museo Nacional del Pradoko artelak bikainak dantza garaikidearekin konbinatuz. Mito batzuk plastikoki garatzeko modu bat, ikus-entzunezko muntaia baten bidez, Toni Miraren koreografiekin (2010eko Dantza Sari Nazionala) non eskulturen eta pinturen irudiek bizitza berreskuratzen duten.

Mitologia inspirazio iturri gisa

Mitoak jainkoen eta erdijainkoen istorioak, eta horien eta gizakien arteko harremanak islatzen dituzten kontakizunak dira. Horregatik daude mitoak antzinako kultura eta gizarte guztietan. Gehienetan jatorri ezezagunekoak izaten dira, tradizioan ahoz transmititzen ziren, eta gutxinaka eraldatzen joaten ziren osagai berriekin edo bertsio ezberdinekin. Mito greziarren kasuan, lehen aipamen ez idatziak ez dira K.a. VIII. mendea baino lehenagokoak.

Mito horien protagonistak Olinpoko jainkoak izan ohi ziren. Gizakien patua zuzendu ez ezik, Lurrera jaisten ziren eta beraiekin harremana izaten zuten; batzuetan itxura gizatiarra hartzen zuten eta horrek hurbilekoagoak egiten zituen. Beren istorioek ere balio zuten naturaren eta unibertsoaren hamaika fenomenori azalpena emateko. Hala, makina bat jainko sortu ziren mendiak, iturriak, errekek, itsasoak, haizeak, konstelazioak... nortzen zituztenak, eta baita ere pertsonifikatzen zituzten, gizakiekin batera bizi ziren era guztietako arbolak eta animaliak.

Historian zehar, mitologia klasikoa etengabeko inspirazio iturri izan da artista askorentzako, eta alegiazko kontaketa horiek zeramiketan, marmol zatietan, dominetan, tauletan eta mihiseetan jasoak geratu ziren, erakusketa honetan ikus daitezkeenak, adibidez.

Erakusketa Museo del Pradoko artelanekin bakarrik dago osatua, K.a. I. mendeko erdialdetik K.o. XVIII. mendearen amaiera arteko piezekin, eta begirada zabala eskaintzen du mitologia greko-erromatarren eta bere irudikapenen inguruan, besteak beste, artista hauen eskutik: Francisco de Zurbarán, José de Ribera, Pedro Pablo Rubens, Michel-Ange Houasse, Francesco Albani, Corrado Giaquinto eta Leone Leoni.



Pedro Pablo Rubens, *Vulcano y el fuego*, siglo XVII. Óleo sobre lienzo. © Museo Nacional del Prado

ERAKUSKETAREN ATALAK

Historia bat kontatzeko

Mitoak kontakizun txundigarriak dira, garai historikotik kanpo kokatuak eta pertsonaia jainkotiar edo heroikoen pasadizoak kontatzen dituztenak. Mitologia, berriz, mitoen multzoa da, eta, aldi berean, mitoei buruzko azterketa.

Mitoei esker, greko eta erromatarrek aukera izan zuten munduaren jatorriari buruzko eta naturaren edo unibertsoaren hainbat fenomenori buruzko interpretazio bat eskaintzeko. Horrela, hainbat eta hainbat jainko sortu ziren, mendi, iturri, ibai, itsaso, haize eta konstelazioak ez ezik, mota guztietako zuhaitz eta animaliak pertsonifikatzen zituztenak. Jainko eta erdijainkoek —betiere giza itxurarekin, munstroen kasuan izan ezik— eta heroiek betiereko aztarna utzi zuten munduaren bilakaeran, gertaera eredugarri eta batez ere sinbolikoen protagonista diren heinean.

Hasiera batean, mitoak idatzi gabeko kontakizunak izan ziren, ahoz aho transmititzen zirenak, eta, pixkana-pixkana, osagai berriak erantsiz aldatzen zirenak. K. a. VIII. mendean, Homerok eta Hesiodok lehen aldiz idatzita jaso zituzten istorio horiek, jainkoak izendatuz eta bakoitzaren berezitasunak aditzera emanez. Alabaina, mito klasikoak ezagutzeko eta zer diren ulertzeko, ondoren etorri ziren beste egile greko zein erromatarren ekarpenetara jo behar dugu, ezinbestean. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Apolodoro, Luziano Samosatarkoa, Diodoro Siziliakoa, Filostrato, Virgilio, eta, bereziki, Ovidio, Itxuraldatzeen egilea, mitologia greko-erromatarren benetako eskuliburua osatzen dutenak.

Mito klasikoetara hurbiltzeko bidean oztopo handi bat aurkitzen dugu: terminologia. Jainko batzuk izen grekoaz ezagutzen ditugu, eta beste batzuk, aldiz, izen erromataraz identifikatzen ditugu errazago. Erakusketan barrena batekoak eta bestekoak ikusiko ditugu, mito baten bertsio jakin


baten arrakastaren arabera edo erakusgai jarritako obren izenaren arabera hautatuak, obra guztien jatorria Museo del Pradoko bildumak izanik.

Olinpoko jainkoak

Olinpo mendia Greziako jainko nagusien bizilekua zen, “olinpiar jainkoen” bizilekua alegia. Haien guztien buruan, Zeus, Kronos aita erorarazi ondoren mundua bere anaiekin banatu zuena: zerua beretzat, itsasoa Poseidonentzat, eta azpimundua Hadesentzat. Teorikoki hiru jainkoek botere bera zuten, baina Zeus zen jainko gorena Olinpon, eta, beraz, Greziako panteoian, baita Erromako panteoian ere, non Jupiterrekin asimilatu zuten.

Zeus hainbat aldiz ezkondu zen, eta ezin konta ahala abentura eduki zituen hainbat jainkosa, ninfa eta emakume hilkorrekin, baita mutil gazteren batekin ere. Harreman horietatik Olinpoko jainko nagusietako batzuk sortu ziren, baita jainko txikiago batzuk —Orduak, Moirak, Graziak, Musak, etab.— eta heroi gailenak ere, hala nola, Pertseo eta Herakles, besteak beste.

Metis ozeanidearekin Atenea sortu zuen, gerraren jainkosa, baina baita jakinduriaren, musikaren eta artisautzaren jainkosa ere. Zeusen eta Letoren arteko harremanetik, berriz, Artemis eta Apolo sortu ziren, ehizaren jainkosa eta argiaren, edertasunaren, poesiaren eta musikaren jainkoa, hurrenez hurren. Demeter arrebarekin Pertsefone sortu zuen, Hades osabak bahitu eta azpimundura eramane zuena. Hera arrebarekiko ezkontzatik Ilitia, erdiurrenen babeslea; Hebe, gaztetasunaren pertsonifikazioa; eta Ares, gerraren jainkoa; sortu ziren. Maia pleiadearekin Hermes eduki zuen, jainkoen mezularia; eta Semele hilkorrearekin, berriz, Dioniso, ardoaren eta festaren jainkoa. Kontakizun batzuen arabera, Afrodita maitasunaren jainkosa ere haren alaba zen. Hefesto suaren jainkoarekin ezkondu zen Afrodita, eta Hefesto Herak sortu zuen, bere senarraren parte-hartzerik gabe.



José de Ribera, *Detalle de la cabeza del dios Baco*, 1636. Óleo sobre lienzo. © Museo Nacional del Prado

Espiritu libreak

Mitoetan jainko klasikoekin batera mota guztietako izaki eta pertsonaiak agertzen dira, sarritan naturaren fenomenoekin zerikusia dutenak. Beren premia eta sexugaleak asetzeko baliatzen zituzten jainkoek, eta jai-ospakizunetara gonbidatzen zituzten.

Haien artean nabarmentzekoak dira ninfak, naturaren jainkosa txikiak, baso, kobazulo eta uretan bizi zirenak, eta haiekin bat egiten zutenak, haien bizi-energiaren adierazgarri diren heinean; esaterako, Naiadeak, Driadeak, Oreadeak, Nereidak eta Ozeanideak. Mito askotan ageri ziren, guztiak hilkorrak ziren, eta, askotan, zenbait jainkoren —Artemis eta Dioniso adibidez— segizioko kide ere izaten ziren, Menadeak ere haien zerbitzuan zeudelarik. Naturaren gizonezko espirituek jartzten zituzten etengabe, Pan jainkoak eta fauno eta satiroek batez ere, eta Olinpoko hainbat jainkoekin maitasun- eta sexu-harremanak zituzten.



Jan Cossiers, *Narciso*, 1636-1638. Óleo sobre lienzo.
© Museo Nacional del Prado

Uranok eta Geak edota Zeusek eta Mnemosine titanideak sortutako musak Olinpon bizi ziren, eta bertako jainkoen festetan kantan eta dantzan aritzen ziren. Betidanik Apolori lotuta agertzen ziren, arteen jainkoari lotuta alegia, eta, banaka edo taldeka, artisten inspirazio-iturritzat jotzen zituzten, bereziki idazle eta artisten inspirazio-iturritzat, hainbat arte-diziplinaren eta jakintzaren pertsonifikazioa izateraino.

Hiru kariteak —Erroman graziak esaten zieten— Zeusen eta Eurinome ozeanidearen alabak ziren. Apoloren segizioko kideak ziren, eta batzuetan Afrodita, Atenea, Eros edo Dionisorekin ere joaten ziren. Atsegintasunaren, jatoritasunaren

eta fintasunaren ikurrak ziren, eta maitasunarekin, edertasunarekin eta sexualitate eta ugalkortasunarekin lotzen ziren, bizitza sortzeko indarrak ziren neurrian.

Maitasuna, desira eta pasioa

Maitasuna mundua mugiarazten duen indarra dela esaten dute. Sentimendu bat, gogo-aldarte bat, ilusio bat eta pasio bat da aldi berean. Baina baita jainko bat ere. Grekoek eta erromatarrek hori uste zuten, eta Eros-Kupido deitu zioten. Nondik ote zetorren argi ez bazegoen ere, haur hegaldun baten antzera irudikatu zuten beti, jainko eta gizakien bihotzekin jolasean dibertitzen zena, zuziarekin su emanez edo geziekin zaurituz. Urrezko geziek maitasuna eragiten zuten; berunezkoek, aldiz, gorrotoa.

Gizon eta emakumeak bezalaxe, jainkoak ere bat-batean maitemintzen ziren. Horixe sentitu zuen Dionisok Ariadna —Teseok abandonatu ondoren— Naxosen aurkitu zuenean, edota Hermesek Herse Atenasko hiri gainean hegan ikusi zuenean.

Hasieran denak zailak eta gatazkatsuak izan ziren arren, maitasun-harreman asko benetan zoriontsuak izan ziren, eta denboran luze iraun zuten, esaterako, Cupidok berak Psikerekin eduki zuena, edota Neptunok eta Anfitritek bizi izan zutena, Plutonen eta haren iloba Proserpinaren artekoan bezalaxe bahiketa batekin hasi zen arren. Baina mitoek zoritxarreko harremanen berri ere ematen zuten, maitaleetako baten heriotzak tragikoki moztutako harremanen berri. Esaterako, Orfeok ezin izan zuen Euridize Hadesetik erreskatatu, eta Zefalok eta Prokrisek ere zorigaitzoko amaiera izan zuten jelsiaren ondorioz, Zefalok jaurretako xabalinak harrapatuta hil baitzen Prokris, senarra zelatatzen ari zen bitartean.

Nartisoren kasua berezia da, uretan islatutako bere irudiarekin maitemindu zelako; isla horri begira maitasuna poliki-poliki agortu egin zitzaion, heriotzaraino, eta, geroago, itxuraldatu eta bere izena daraman lorearen itxura hartu zuen.

Hutsegiteak eta zigorrak

Gizakiak bere-berezkoa du indarkeria, eta jainko greko-erromatarren artean ere printzipio orokor hori bete egin zen, giza itxuraldatuta gizakiekin elkarreraginean ibili zirela kontuan hartzen badugu. Horregatik, mito klasikoak jainkoen arteko lehia eta borroka josita daude. Kronosek Urano aita zikiratu zuen, eta boterea kendu zion; hura ere erorarazi zuten, ordea, Zeus semearen eskutik. Bi

borroka fratrizida horien ildotik bi gatazka handi sortu ziren, jainko ugarien parte-hartzearekin: Titanen gerra eta Erraldoien gerra. Borroka horiek kaosaren eta ordenaren arteko gatazkaren ikurtzat jo zituzten betidanik, Antzinetatik.

Olinpoko jainkoek zigortu egiten zituzten haien aurka altxatzen ziren gizakiak edo jainko txikiak, eta zigor horiek mugagabeak izan zitezkeen, betierekoak. Furia ospetsuek, esate baterako, tormentuak pairatzen zituzten behin eta berriz: hegazti harrapari batek Tizioaren gibela jaten zuen behin eta berriz; Tantalo betiereko gosea eta egarria pairatzera zigortu zuten; Sisifo harri itzel bat etengabe mugitzera kondenatu zuten; eta Ixion, berriz, gurgil baten inguruan etengabe biraka ibiltzera behartu. Prometeok ere arrano baten erasoak pairatzen zuen egunero; gibela jaten zion, eta gauean birsortu egiten zitzaion.

Tenpluen barruan harremanak edukitzea errukirik ezaren adierazgarri argia zen, eta jainkoek gogor zigortzen zuten. Laokoon Troiako apaizari horixe gertatu zitzaion, bi sugek haren eta bi semeen gorputzetan kiribildu eta erailtzearaino estutu baitzituzten. Zibelek, berriz, Atalanta eta Hipomenes lehoi bihurtu zituen, eta bere gurdian uztartu. Jainkoek sarri jotzen zuten itxuraldatzera, eraldatzera, norbait zigortu nahi zutenean.

Jainkoen eta gizakien itxuraldatzeak

Itxuraldatzea eraldatzea da, baita engainua eta itxurak egitea ere. Jainko greko-erromatar nagusiek egundoko ahalmena zuten itxura fisikoa aldatu eta nortasun berri batez jabetzeko. Horrela beren helburuak betetzen zituzten, gehienetan haragizko plazerari loturik.

Poseidon anaia atzean geratu ez bazen ere —zaldi eta ahari bihurtu zen, Demeterrekin eta Teofanerekin bat egiteko, hurrenez hurren—, Zeus izan zen bere sen oinarrizkoenak asetzeko amarru hori gehien erabili zuena, eta horregatik atal honen ia protagonista bakarra izango da.

Zeusek animalia-itxura hartzen zuen gehienetan. Hala, arranoaren (bere animalia enblematikoa) itxura hartu zuen Ganimedes artzain gaztea bahitzeko, bere maitale eta jainkoen kopari izan zedin. Beltxarga bihurturik, berriz, Zeusek Leda erregina seduzitu zuen, eta harekin Helena eta Polux sortu zituen, eta zezen bihurtuta Europa printzesa bahitu zuen. Horrez gain, Artemis alabaren itxura ere hartu zuen, Kalisto ninfa limurtzeko, eta Anfition erregearen itxura ere hartu zuen Alkmene haren emaztearekin harremanak edukitzeko, harreman horietatik Herakles sortu zelarik. Beste batzuetan, fenomeno atmosferikoen itxura hartu zuen Zeusek, bere konkistak lortzeko, eta hodei grisaren itxura hartu zuen lo dontzeila gaztea bere egiteko, edota urrezko euri Danaez gozatzeko; azken horrek Pertseo sortu zuen, Greziako heroi nagusietako bat.

Askotan itxuraldatzea konponbidea ere izaten zen, jainko baten jazarpena saihesteko aproposa, eta zenbait ninfak ederki baliatu zuten. Hala, Dafne erramu bihurtu zen Apolorengandik ihes egiteko, eta Siringak kanabera multzoaren itxura hartu zuen Pan jainkoaren jazarpena saihesteko.

Heroiak

Jainko eta erdijainkoekin batera, heroiek funtsezko zeregina bete zuten mito klasikoetan. Jainko eta emakume hilkor baten seme-alabak izan zitezkeen, edota jainkosa baten eta gizon hilkor baten arteko harremanetik sortu; baina bi hilkor soilen seme-alabak ziren heroiak ere bazeuden. Beren balentriak utzi zizkiguten, fama eta loria eman zizkietenak.

Akiles, “oin arinak” zeuzkana, Iliadaren protagonista nagusia da. Jaio eta berehala, Tetis jainkosak, bere ama izateaz gain Ptiako errege Peleoren emaztea zenak, Estigia ibai infernutarreko uretan

murgildu zuen buruz behera oso-osorik, orpoa izan ezik, orpotik helduta baitzuen, aurrerantzean semea ezin zaurituzkoa izan zedin. Kiron zentauroak hezi zuen, eta urte batzuk geroago Troiako gerran nabarmendu zen. Loria lortu zuen bertan, baina baita heriotza ere, Parisek gezi batez jo baitzion orpoan, haren puntu ahul bakarrean, alegia.

Zeusen eta Danaeren semea zen Pertseok toki berezia merezi du Greziako heroien artean. Medusa gorgonari gailendu zitzaion haren burua ebakiz, eta horixe izan zen Pertseoren balentria nagusia. Geroago, Etiopiako erresuma mendean zuen itsas munstro bat erail zuen, eta horri esker Andromeda askatu zuen, denborarekin bere emaztea izango zena.

Herkules —Herakles Grezian— heroi klasiko nagusia da, dohain eta bertute mitiko eta eredugarriak hezurmamitzen dituen heinean. Zeusen eta Alkmenaren semea zenez, Heraren suminaren ondorioak pairatu zituen, eta zoraldi batean bere semeak erail zituen. Horregatik, “Herkulesen hamabi lan” ospetsuak egitera behartu zuten, eta horri esker ospea eta loria lortu zuen mundu osoan, hilezkortasuna lortu eta jainkoen Olinpora igotzeraino.

Troiako gerra

Troiako gerra grekoen eta troiarren arteko borroka nagusia izan zen, baina jainko askok ere eskuhartze aktiboa eta erabakigarria izan zuten borroka horretan, alde batekoei zein bestekoei laguntza emanez hainbat arrazoi tarteko.

Junoren, Minervaren eta Venusen arteko lehia batekin hasi zen auzia. Zehazkiago, “ederrenarentzako” urrezko sagarra lortzeko lehian zebiltzan hirurak. Eta auzia ebazteko, Jupiterrek Paris Troiako gaztea hautatu zuen, epaile-lanak eginez jainkosa ederrena hauta zezan. Haren aurrean biluzik azaldu ziren hirurak, beren xarma fisikoa agerian uzteko, eta, horrez gain, eskaintza interesgarri eta tentagarriak egin zizkieten: Junok, lurralde zabal baten gaineko boterea; Minervak, jakinduria eta bataila guztien garaipena; Venusek, munduko emakume ederrenaren maitasuna. Parisek azken hori hautatu zuen.

Munduko emakumerik ederrena Helena zen, Espartako Menelao erregearen emaztea. Parisek bahitu egin zuen, edo biek elkarrekin Troiarantz ihes egin zuten, eta horregatik grekoak hura erreskatatzeko konjuratu ziren. Horrela hasi zen gerra, heroi eta gerrari handiak bilduko zituen, hala nola Agamenon, Menelao, Odiseo, Diomedes, Ajax Handia, eta bereziki Akiles, Iliadaren —gatazka armatu mitiko hori kontatzen duen poema homeriko handia— protagonista nagusia.

Akeoen eta troiarren arteko borroka urteak eta urteak iraun zituen, batekoak eta besteok garaipena lortu ezinean zebiltzalako, eta, bitartean, bi bandoek gerrari nagusietako batzuk galdu zituzten. Azkenean grekoek atzera-egitearen plantak egitea erabaki zuten, Troiako hondartzetan zurezko zaldi erraldoi bat utzita, non soldadu onenetako batzuk ezkutatu ziren, Odiseo haien guztien buruan. Jainkoentzako eskaintza bat zelako ustetan, troiarrek zaldia hiri barnera eraman zuten, eta horrela grekoek Troia hartu eta zeharo arpilatu zuten; azkenean, sute batek hiria suntsitu egin zuen.

JARDUERAK

KOMISARIOAREN HITZALDIA

Igandea, uztailak 8, 12:00

Fernando Pérez Suescun erakusketaren komisarioa eta Museo Nacional del Pradoko Hezkuntza Saileko Eduki Didaktikoen burua.

Ekitaldi aretoa / Gaztelaniaz / Sarrera librea lekuak bete arte

SAN TELMO GAUA

Larunbata, abuztuak 25, 20:30-24:00

Aldi baterako erakusketak, eliza eta klaustroa irekita egongo dira, taberna zerbitzuarekin. Gainera, musika klasikoko DJ sesioa egongo da Mikel Chamizorekin.

BISITA GIDATUAK ERAKUSKETARA

Astartetan eta larunbatetan, bisita gidatuak egongo dira 11:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz. Abuztuan zehar bisita hauetan erakusketarekin lotutako musika piezak entzun ahal izango dira, Musika Hamabostaldiak hautatuak.

Parte hartzeko ez da izena eman behar, doakoak dira, museorako sarrerarekin. Gainera, taldeentzako bisita gidatuak ere hitzartu daitezke: stm_erreserbak@donostia.eus / 943 48 15 61

SAN TELMO MUSEOA – MUSIKA HAMABOSTALDIA LANKIDETZA

Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak erakusketatik Musika Hamabostaldiaren eta San Telmo Museoaren lankidetzak bat sortu da, urtero jaialdiak museoan antolatzen dituen jarduera eta kontzertuetatik harago (aurten ere izango dira: Ostegun Musikalak San Telmon eta haurrentzako jarduerak).

Mittoa eta tradizioa

Musikak, mitologiak eta tradizioak espazio amankomuna partekatu dute imaginario kolektiboan duela milaka urtetik. *Artea eta mitoa. Pradoko jainkoak* erakusketarekin bat eginez, Musika Hamabostaldiak harreman hau ospatu nahi izan du gai horren inguruko obra sorta bat programatuz (www.quincenamusical.eus).

Bi erakunde hauen lankidetzari esker, gainera, abuztuan zehar erakusketarako sarrera doan izango du Musika Hamabostaldiko “Mittoa eta tradizioa” zikloko kontzerturen baterako sarrera erakusten duen bisitariak.

Horrez gain, abuztuaren 25eko San Temo Gauda, Mikel Chamizoren parte hartzea izango duena, musika jaialdiarekin lankidetzan antolatu da.

Bestalde, jaialdiak mitologia klasikoarekin, beste mitologiekin eta jakinduria tradizionalarekin lotutako obra zerrenda bat prestatu du Spotifyn, eta abuztuan egongo diren bisita gidatuetan horien zati batzuk entzun ahal izango dira. Horrez gain, zerrenda San Telmoren webgunean ere egongo da eta museoaren sarreran entzunketa puntu bat jarriko da.

Azkenik, Musika Hamabostaldiko lagunek eta San Telmo Museoko bazkideek jarduera eksklusiboak izango dituzte.

Los dioses del Olimpo llegan al Museo San Telmo de la mano del Museo Nacional del Prado y de la Obra Social "la Caixa"

*La muestra **Arte y mito. Los dioses del Prado**, organizada conjuntamente por la Obra Social "la Caixa" y el Museo Nacional del Prado, con la colaboración del Museo San Telmo, se podrá visitar desde mañana, 7 de julio, hasta el 28 de octubre*

Ofrece una amplia mirada sobre la mitología clásica y su representación a lo largo de la historia del arte, a través de pinturas, esculturas y objetos fechados entre el siglo I a. C. y finales del siglo XVIII d. C., de artistas de la talla de Francisco de Zurbarán, José de Ribera, Pedro Pablo Rubens, Michel-Ange Houasse, Francesco Albani, Corrado Giaquinto y Leone Leoni, entre otros. Fernando Pérez Suescun, jefe de Contenidos Didácticos, Área de Educación, Museo Nacional del Prado, es su comisario.

Los mitos son la forma de contar las hazañas y acciones de los dioses. Esas divinidades no solo rigen el destino de los hombres, sino que bajan a la Tierra e interactúan con ellos, dando origen así a complejos mitos en los que se entrelazan las historias de los héroes o semidioses. Arte y mito. Los dioses del Prado es una exposición inédita organizada por la Obra Social "la Caixa" y el Museo Nacional del Prado, surgida de la alianza estratégica que mantienen ambas instituciones. La muestra ofrece una amplia mirada sobre la mitología clásica y su representación a lo largo de la historia del arte, a través de pinturas, esculturas y objetos fechados entre los años centrales del siglo I a. C. y finales del siglo XVIII d. C. Una propuesta diacrónica, a partir de 50 obras de las colecciones del Museo del Prado, con nombres esenciales de la historia del arte como Rubens, Ribera o Zurbarán, entre muchos otros. La exposición se articula en ocho secciones de carácter temático y ofrece, simultáneamente, distintas representaciones de dioses y variadas interpretaciones de un mismo episodio mitológico, haciendo posible apreciar al mismo tiempo la riqueza iconográfica, geográfica y cronológica de las colecciones del Museo del Prado.

La muestra presenta una nueva forma de dar a conocer la mitología clásica combinando las extraordinarias obras de arte del Museo Nacional del Prado con la danza contemporánea. Una forma de desarrollar plásticamente algunos de los mitos a partir de un montaje audiovisual con las coreografías de Toni Mira, Premio Nacional de Danza 2010, en el que las imágenes de las esculturas y pinturas cobran vida.

La mitología como fuente de inspiración

Los mitos son relatos que plasman las historias de dioses y semidioses, y la relación de estos con los hombres. De ahí que se hallen presentes en todas las culturas y sociedades antiguas. De origen incierto en la mayor parte de las ocasiones, tradicionalmente se transmitían de forma oral, modificándose paulatinamente con nuevos añadidos y diferentes versiones. En el caso de los mitos griegos, los primeros testimonios escritos no se remontan más allá del siglo VIII a. C.

Los protagonistas de esos mitos eran los dioses del Olimpo, que no solo regían el destino de los hombres, sino que bajaban a la Tierra e interactuaban con ellos, adoptando en ocasiones una apariencia humana que los hacía más cercanos. Sus historias también servían para explicar un sinnúmero de fenómenos de la naturaleza o del universo que los rodeaba. Surgieron así infinidad de divinidades que personificaban montañas, fuentes, ríos, mares, vientos, constelaciones..., y también todo tipo de árboles y de especies animales que convivían con los hombres.

A lo largo de la historia, la mitología clásica ha resultado una constante fuente de inspiración para numerosos artistas, y esas fabulosas narraciones quedaron recogidas en cerámicas, bloques de mármol, medallas, tablas y lienzos como los que forman parte de esta exposición. La muestra está compuesta exclusivamente por obras del Museo del Prado, fechadas entre los años centrales del siglo I a. C. y finales del siglo XVIII d. C., y ofrece una amplia mirada sobre la mitología grecorromana y su representación por parte de artistas de la talla de Francisco de Zurbarán, José de Ribera, Pedro Pablo Rubens, Michel-Ange Houasse, Francesco Albani, Corrado Giaquinto y Leone Leoni, entre otros.



Pedro Pablo Rubens, *Vulcano y el fuego*, siglo XVII. Óleo sobre lienzo. © Museo Nacional del Prado

ÁMBITOS DE LA EXPOSICIÓN

Una historia que contar

Los mitos son relatos maravillosos situados fuera del tiempo histórico y protagonizados por personajes de carácter divino o heroico. La mitología, por lo tanto, es el conjunto de dichos mitos y, al mismo tiempo, su estudio.

Gracias a los mitos, griegos y romanos pudieron ofrecer una interpretación sobre el origen del mundo y sobre distintos fenómenos de la naturaleza o del universo. Surgieron así infinidad de divinidades que personificaban montañas, fuentes, ríos, mares, vientos, constelaciones..., pero también todo tipo de árboles y de especies animales. Dioses y semidioses —siempre con apariencia humana, salvo en el caso de los monstruos— dejaron, junto con los héroes, una huella perenne en el curso del mundo como protagonistas de sucesos ejemplares con un componente simbólico esencial.

En un primer momento, los mitos fueron narraciones no escritas que iban transmitiéndose de forma oral y modificándose paulatinamente con nuevos añadidos. Homero y Hesíodo, en el siglo VIII a. C., fueron los primeros en poner por escrito esas historias, dando nombres a los dioses y señalando sus particularidades. Pero no podríamos conocer y entender los mitos clásicos sin las aportaciones de otros autores posteriores, tanto griegos como romanos. Cabe destacar, entre otros, a Apolodoro, Luciano de Samósata, Diodoro de Sicilia, Filóstrato, Virgilio y, especialmente, Ovidio, autor de las *Metamorfosis*, que constituyen un auténtico manual de mitología grecorromana.

El acercamiento a los mitos clásicos presenta un importante obstáculo: la terminología. Algunos dioses son conocidos por sus nombres griegos, pero otros son más reconocibles por su designación romana. A lo largo de la exposición aparecen las dos opciones, dependiendo del éxito de una determinada versión de un mito o de los títulos de las obras expuestas, todas ellas procedentes de las colecciones del Museo del Prado.

Los dioses del Olimpo

El monte Olimpo era el lugar donde tenían su morada los principales dioses griegos, los denominados dioses olímpicos. A la cabeza de todos ellos estaba Zeus, que, tras derrocar a su padre, Cronos, se había repartido el dominio del mundo con sus hermanos varones: a él le correspondieron los cielos, a Poseidón los mares y a Hades el inframundo. Teóricamente, los tres dioses tenían el mismo poder, pero Zeus fue considerado como la divinidad suprema del Olimpo y, por lo tanto, del panteón griego, y también del romano, en el que fue asimilado a Júpiter.

Zeus contrajo varios matrimonios y tuvo innumerables aventuras con distintas diosas, ninfas, mujeres mortales e, incluso, algún joven efebo. De esas relaciones nacieron algunos de los principales dioses del Olimpo, otras divinidades menores —las horas, las moiras, las gracias, las musas...— y, también, destacados héroes, como Perseo y Heracles, entre otros.

Con la oceánide Metis concibió a Atenea, diosa de la guerra, pero también de la sabiduría, de la música y de la artesanía. De la relación de Zeus con Leto nacieron Artemisa y Apolo, diosa de la caza y dios de la luz, la belleza, la poesía y la música, respectivamente. Con su hermana Deméter engendró a Perséfone, que fue raptada y transportada al inframundo por su tío Hades. De su matrimonio con Hera, también hermana suya, nacieron Iliía, protectora de las parturientas; Hebe, personificación de la juventud, y Ares, dios de la guerra. Con la pléyade Maya tuvo a Hermes, el mensajero de los dioses, y con la mortal Semele a Dioniso, dios del vino y la fiesta. Algunos relatos dicen que también era hija suya Afrodita, la diosa del amor, que se casó con Vulcano, dios del fuego, a quien Hera había engendrado sin la participación de su esposo.



José de Ribera, *Detalle de la cabeza del dios Baco*, 1636. Óleo sobre lienzo. © Museo Nacional del Prado

Espíritus libres

Los dioses clásicos aparecen en los mitos acompañados de todo tipo de seres y personajes —vinculados a menudo a distintos fenómenos de la naturaleza—, de los que se sirven para satisfacer sus necesidades o apetitos carnales, y a los que también hacen partícipes de sus fiestas y celebraciones.

Entre estos personajes, cabe destacar a las ninfas, deidades menores de la naturaleza que habitaban en los bosques, las cuevas y las aguas, elementos con los que llegaban a identificarse, al encarnar su energía vital. Así, encontramos, por ejemplo, a las náyades, las dríades, las oréades, las nereidas y las oceánides. Presentes en muchos mitos, todas ellas eran mortales y, a menudo, formaban parte del cortejo que acompañaba a algunos dioses, como Artemisa y Dioniso, a cuyo servicio estaban también las ménades. Constantemente perseguidas por los espíritus masculinos

de la naturaleza —fundamentalmente el dios Pan y los faunos y sátiros—, también tenían relaciones amorosas y/o sexuales con varios dioses del Olimpo.

Las musas, engendradas por Urano y Gea, o bien por Zeus y la titánide Mnemósine, vivían en el Olimpo, donde cantaban y danzaban en las grandes fiestas de los dioses. Tradicionalmente, aparecían asociadas a Apolo, dios de las artes, y ellas mismas, de forma individual o colectiva, eran consideradas como inspiradoras de artistas, especialmente de los literatos y los músicos, llegando a personificar diferentes disciplinas artísticas y del conocimiento.

Las tres cártes —conocidas como gracias en Roma— eran hijas de Zeus y de la oceánide Eurínome. Integrantes del séquito de Apolo, a veces también acompañaban a Afrodita, Atenea, Eros o Dioniso. Simbolizaban la afabilidad, la simpatía y la delicadeza, y se asociaban con el amor, la belleza, la sexualidad y la fertilidad, como fuerzas generadoras de vida.



Jan Cossiers, *Narciso*, 1636-1638. Óleo sobre lienzo.
© Museo Nacional del Prado

Amor, deseo y pasión

Dicen que el amor es la energía que mueve el mundo. Es un sentimiento, un estado de ánimo, una ilusión y una pasión. Pero también es un dios. Así lo creían los griegos y los romanos, que le pusieron nombre: Eros o Cupido. Aunque no está muy claro cuál es su origen, siempre se ha representado como un niño alado que se divierte jugando con los corazones de dioses y mortales, a quienes inflama con su antorcha o hiere con sus flechas. Las de oro provocan amor; las de plomo, en cambio, odio.

Igual que los hombres y las mujeres, los dioses también sufrían enamoramientos repentinos, auténticos flechazos. Es lo que sintió Dioniso al encontrar en Naxos a Ariadna, que había sido abandonada por Teseo, o Hermes al ver a Herse cuando sobrevolaba la ciudad de Atenas.

Aunque con inicios difíciles y tormentosos, muchas relaciones amorosas fueron dichosas y prolongadas en el tiempo, como la del propio Cupido con Psique, o la que mantuvieron Neptuno y Anfítrite, que empezó con un rapto, igual que en el caso de Plutón y su sobrina Proserpina. Pero los mitos contaban también uniones desgraciadas, trágicamente truncadas por la muerte de uno de los amantes. Así le ocurrió a Orfeo con Eurídice, a la que no pudo rescatar del Hades, y también a Céfalos y Procris, que tuvieron un funesto final provocado por los celos cuando Procris fue alcanzada por una jabalina lanzada por su esposo mientras ella le espiaba.

El caso de Narciso es singular, ya que se enamoró de su propia imagen reflejada en el agua. Contemplando ese reflejo, se fue consumiendo de amor hasta la muerte, metamorfoseándose posteriormente en la flor que lleva su nombre.

Faltas y castigos

La violencia es inherente al ser humano, y los dioses grecorromanos, que adquirieron apariencia humana e interactuaron con los hombres, no escaparon a ese principio general. Por eso los mitos clásicos están plagados de pugnas y disputas entre distintas divinidades. Si Cronos castró a su

padre Urano y le arrebató el poder, él también fue derrocado por su hijo Zeus. Estas luchas fratricidas dieron lugar a dos grandes enfrentamientos en los que participaron numerosas divinidades: la Titanomaquia y la Gigantomaquia. Esas luchas fueron vistas, ya desde la Antigüedad, como un símbolo del conflicto existente entre el caos y el orden.

Los castigos que los dioses del Olimpo imponían a los hombres o a otros dioses menores que se alzaban contra ellos podían tener un carácter indefinido, eterno. Es el caso de las famosas furias, que sufrían tormentos que se repetían una y otra vez: Ticio, cuyo hígado devoraba cada día un ave rapaz; Tántalo, castigado a sufrir sed y hambre eternas; Sísifo, condenado a mover permanentemente una enorme roca, e Ixión, obligado a dar vueltas sin fin en una rueda. También Prometeo sufría el ataque diario de un águila que le devoraba el hígado, que se regeneraba cada noche.

Mantener relaciones en el interior de los templos constituía una grave muestra de impiedad que los dioses sancionaban de forma contundente. Así le ocurrió al sacerdote troyano Laocoonte, atacado por dos serpientes que, enroscándosele en el cuerpo, acabaron con su vida y con la de sus dos hijos, y también a Hipómenes y Atalanta, convertidos en leones por la diosa Cibeles y uncidos a su carro. Este recurso a la metamorfosis, a la transformación, fue muy empleado por los dioses como castigo.

Metamorfosis divinas y humanas

Metamorfosis es sinónimo de transformación, de engaño y de falsas apariencias. Los principales dioses grecorromanos tenían una extraordinaria capacidad para alterar su aspecto físico y adquirir una nueva identidad. De ese modo alcanzaban sus objetivos, relacionados en la mayor parte de las ocasiones con el placer carnal.

Aunque su hermano Poseidón no le fue en zaga —se transformó en caballo y en carnero para unirse a Deméter y a Teófane, respectivamente—, fue Zeus quien más a menudo usó esa argucia para satisfacer sus instintos más básicos, y a él se dedica esta sección casi de forma exclusiva.

El principal recurso utilizado por Zeus fue adoptar una apariencia animal. Así, metamorfoseándose en águila, su animal emblemático, raptó al joven pastor Ganimedes para llevárselo al Olimpo como su amante y copero de los dioses. En otra ocasión, convertido en cisne, Zeus sedujo a la reina Leda, con quien engendró a Helena y Pólux, y transformado en toro raptó a la princesa Europa. Pero también adoptó la apariencia de su hija Artemisa para seducir a la ninfa Calisto, y tomó el aspecto del rey Anfitrión para mantener relaciones con su esposa Alcmena, fruto de las cuales nació Heracles. En otras ocasiones, Zeus adquirió la forma de fenómenos atmosféricos para lograr sus conquistas, y se transfiguró en nube gris para tomar a la joven doncella Ío, o en lluvia dorada para poseer a Dánae, quien daría a luz a Perseo, uno de los grandes héroes griegos.

A menudo, la metamorfosis resultaba una solución para evitar el acoso de un dios, y a ella recurrieron varias ninfas, como Dafne, transformada en laurel para escapar de Apolo, o Siringa, convertida en unas cañas para evitar la persecución del dios Pan.

Héroes

Junto a los dioses y semidioses, los héroes jugaron un papel fundamental en los mitos clásicos. Podían ser hijos de un dios y una mortal, o de una diosa y un mortal; pero también hubo héroes

que eran hijos de dos simples mortales. De ellos nos quedan sus hazañas, con las que alcanzaron fama y gloria.

Aquiles, «el de los pies ligeros», es el protagonista indiscutible de la *Iliada*. Poco después de nacer, su madre, la diosa Tetis, esposa de Peleo, rey de Ftía, sumergió a Aquiles en las aguas del infernal río Estigia haciéndolo invulnerable, excepto en el talón por el que lo tenía cogido. Fue educado por el centauro Quirón y, años después, tuvo una intervención destacada en la guerra de Troya, donde alcanzó la gloria y donde también encontró la muerte, cuando Paris le alcanzó con una flecha en su único punto débil, el talón.

También Perseo, hijo de Zeus y Dánae, ocupa un lugar destacado entre los héroes griegos. Su principal hazaña fue vencer a la gorgona Medusa, cortándole la cabeza. Más tarde dio muerte al monstruo marino Ceto, que asolaba el reino de Etiopía, liberando así a la princesa Andrómeda, su futura esposa.

Hércules —Heracles en Grecia— es el héroe clásico por excelencia, que encarna cualidades y virtudes que se consideran míticas y modélicas. Hijo de Zeus y Alcmena, sufrió las consecuencias de la ira de Hera, quien le provocó un acceso de locura durante el cual dio muerte a sus hijos. Como castigo, tuvo que realizar los legendarios doce trabajos de Hércules, con los que obtuvo fama y reconocimiento universal, logrando alcanzar la inmortalidad y ascender al Olimpo de los dioses.

La guerra de Troya

La guerra de Troya es el gran enfrentamiento entre griegos y troyanos, pero en ella también intervinieron de forma activa y decisiva muchos dioses que, por distintas razones, decidieron apoyar a uno u otro bando.

Todo empezó con una manzana de oro para «la más bella», título que reclamaban Juno, Minerva y Venus. Para resolver tal disputa, Júpiter eligió como juez a Paris, un joven pastor troyano que debía entregar la manzana a quien considerase que era la diosa más bella. Además de presentarse desnudas para mostrar su atractivo físico, las tres diosas le hicieron interesantes y tentadoras ofertas: Juno le ofreció el poder sobre un amplio territorio; Minerva, la sabiduría y la victoria en todas las batallas, y Venus, el amor de la mujer más bella del mundo. Paris eligió a Venus.

La mujer más bella del mundo resultó ser Helena, esposa del rey Menelao de Esparta. Paris la raptó, o ambos huyeron juntos rumbo a Troya, por lo que los griegos se conjuraron para rescatarla. Así dio comienzo la guerra, en la que tomaron parte grandes héroes y guerreros, como Agamenón, Menelao, Odiseo, Diomedes, Áyax el Grande y, especialmente, Aquiles, que es el principal protagonista de la *Iliada*, el gran poema homérico que narra este mítico conflicto armado.

El enfrentamiento entre aqueos y troyanos se prolongó durante muchos años, sin que la victoria se decantase por uno u otro bando, y mientras tanto ambas facciones iban perdiendo a algunos de sus principales guerreros. Finalmente, los griegos decidieron fingir su retirada y abandonar en las playas de Troya un gran caballo de madera, en cuyo interior se escondían varios de sus mejores soldados, encabezados por Odiseo. Creyendo que era una ofrenda a los dioses, los troyanos introdujeron el caballo en la ciudad; de ese modo, los griegos lograron apoderarse de Troya, que fue saqueada y quedó destruida por un gran incendio.

ACTIVIDADES

CONFERENCIA A CARGO DEL COMISARIO

Domingo 8 de julio, a las 12:00

Fernando Pérez Suescun, comisario de la exposición y jefe de Contenidos Didácticos del Área de Educación del Museo Nacional del Prado

Salón de actos / En castellano / Entrada libre hasta completar aforo

SAN TELMO GAUA

Sábado 25 de agosto, de 20:30 a 00:00

Apertura especial de exposición temporal, claustro e iglesia, con entrada gratuita y servicio de bar. Además, Mikel Chamizo vinculará la exposición con música clásica en una sesión de DJ.

VISITAS GUIADAS A LA EXPOSICIÓN

Los martes y los sábados se realizarán visitas guiadas, a las 11 h en euskara y a las 18 h en castellano. Durante el mes de agosto estas visitas incorporarán la audición de fragmentos de las piezas seleccionadas por la Quincena Musical.

No es necesario inscribirse para participar y son gratuitas, con la entrada al museo. Además, se pueden concertar visitas para grupos: stm_erreserbak@donostia.eus, 943 48 15 61

COLABORACIÓN SAN TELMO MUSEOA-QUINCENA MUSICAL

La exposición *Arte y mito. Los dioses del Prado* ha dado pie a una colaboración entre la Quincena Musical y el Museo San Telmo, más allá de las actividades y los conciertos que anualmente programa el festival de música en el museo y que también se celebrarán este año (Jueves de música en San Telmo y actividades infantiles).

Mito y tradición

Música, mitología y tradición han compartido un espacio común en el imaginario colectivo desde hace miles de años. Coincidiendo con la exposición *Arte y mito. Los dioses del Prado* que acoge el Museo San Telmo, la Quincena Musical ha querido celebrar esta relación programando una serie de obras que hacen referencia a este nexo. (<https://www.quincenamusal.eus/>)

Gracias a la colaboración entre las dos instituciones, durante el mes de agosto la entrada a la exposición será gratuita presentando una entrada de alguno de los conciertos englobados bajo el título Mito y tradición de Quincena.

También San Telmo Gaua, el 25 de agosto, en la que participará Mikel Chamizo, se ha organizado en colaboración con el festival de música.

Por otra parte, el festival ha preparado un listado de piezas relacionadas con la mitología clásica, otras mitologías y saberes tradicionales en Spotify, y en las visitas guiadas que se han programado en torno a la exposición en agosto, se podrán escuchar fragmentos de estas piezas. El listado también estará disponible en la web del museo y se instalará un punto de escucha en el hall de San Telmo.

Finalmente, los/as amigos/as de Quincena Musical y los/as socios/as de San Telmo Museoa podrán disfrutar de actividades exclusivas.